

12 BALDINTZAZKOAK

12.1 ERANTZUNAK: Baldintzazkoak

1. Norbait saritzekotan, Xabi hautatuko nuke.
2. Olentzerori aurten eskatu diodan guztia ekarriko balit, oso pozik geratuko nintzateke.
3. Nahiago nuke hemendik aurrerakoak zuek zeuek guri kontatuko bazenizkigute.
4. Aita aurrean egon ezean, neba-arrebek berehala ekiten zioten borrokari.
5. Aholkurik nahi izanez gero, nik eskarmentua duenarengana joko nuke.
6. Dena ondo egitekotan, hobe dugu zu alde batera uzten bazaitugu.
7. Zuei horrelakorik gertatuko balitzaizue, ez zenukete atarramendu onik aterako, duzuen eskarmentu urria dela-eta.
8. Eskertuko nizuke zerbitzu arinagoa eskaintzeko iradokizunen bat emango bazenit.
9. Bisitarik egin ezean, haserretuko ez da, ba!
10. Maitek eta Mertxek zu hori egiten ikusiko bazintuzte, errieta egingo lizukete.
11. Makuluak kentzen bazaizkio /badizkiozu, elbarri hori ez da bakarrik ibiltzeko gauza.
12. Lanean hasi berritan etxebizitza erosi ezean, xoxak xahutzen hasiko zara.
13. Baldin eta inoiz, zirkustantzia hauetan bezala, bereganako ardurarik onartzen bazuen, bere arbuioa nabarmentzeko zen.
14. Liburua bai, utziko dizut baina datorren asterako itzultzekotan!
15. Egia bakarra dukl, hemen txahal ona hazi ezean /ezik, ederra egingo didatela aurten ere.
16. Oinez itzuliko bagara, nahiago dut hemendik ez mugitu.